

HITZAURRE GISA

Jose Luis Alvarez Enparantza

BATen ale honetan, bai aztergaiei dagokienez, eta bai egileen ikuspuntu-
tuen aldetik, lau multzo bana bide daitezke.

Lehendabizikoan, gure hizkuntzaren arazoa instituzioetatik beretatik
nola antzematen den azaltzen zaigu. Esan beharrik ez, barruko alde-
tik mamitutako txosten hauek oso interes berezia dute; zenbait euskal
girotan azkarregi gutxietsi ohi baita erakunde ofizialetan, euskaltzale
mordo bat azkeneko urte hauetan isilean burutzen ari den lana.

Aberasgarri gertatuko zaizkio irakurleari, horretara, **Jokin Azkueren**
Euskararen erabileraren normalkuntza prozesuaren ebaluazioa Euskal Herri
administrazioetan izkribua (17 orrialde); eta **Juan Ramón Elorz Dome-**
zain Normalizazio Zerbitzuko Zuzendariak prestatutakoa (15 orrial-
de). Lehenengoak, Hizkuntza Politikarako Sailordetzatik, Baskonga-
detako erabileraren normalkuntzaren zertzeladak hartu ditu aztergai.
Eta bigarrenak, simetrikoki, Nafarroakoak azaltzen dizkigu: *Nafarroako*
administrazio publikoaren hizkuntz normalizazioari buruz izenekoa.

Biotan lege-oinarriak xeheki zerrendatu ondoren (Lege, Dekretu, eta
beste), egoeraren labur-bilduma eskaintzen zaio irakurleari; baita azken
helburua garbi oroitarazten: «**benetako Administrazio elebiduna lor-**
tzea»

«Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia» aurtengo maiatzean desagertu da, eta «Hizkuntza Politikarako Sailordetza» izenekoak sortu beharraren gakoa ez da erraz ulertzen. Baina izendapenaren mailako aldaketa horien atzean, berregokitze beharrak badaudela somatzen da. Eta nolana ere, funtsera joateko zedarri batzuk agertzen.

Berriro ikusten dugu harriritu, normalkuntzarako bidean oso garrantzitsu diren **Hezkuntza**, **Osasuna** eta **Ertzaintza**ren alorrak, orain arteko Plangintzatik at utzi direla. Zergatik? Noiz arte?

Honekin loturik, **Ertzaintza**n sartzeko euskalduntasuna derrigorrezko baldintza ez dela ikusten dugu; «meritu» hutsa baizik. Ezarpen epeak eta datak oso tentuz ari dira finkatzen («apurka-apurka» dinosku txostengileak); eta mugak behin eta berriz atzeratzen, ageri denez.

Honi guztiari buruz, dena dela, erantzun zehatza eman du EKBk ale honetantxe, are kontrajarriak diren datu batzuk hausnartuz. Hobere-na, beraz, irakurleak berak bere buruz hori guztia alderatzea eta bere irizpidea moldatzea da. Nola utzi daiteke, adibidez, elebiduntze prozesua langile publikoen onginahian?

Plegu bereko ekarpena da Elorz nafartar Zuzendariarena; eta darabil-tzan hitzak berak ere, antzekoak oso: «borondatezkitasuna» adibidez, Legean bertan agertzen delarik. Foru-Dekretuaren aplikazioa, «pixkana-pixkana» egingo dela argitzen zaigu, eta abar. Hots, Nafarroan (Baskongadetan ez ala?) alor labain honetan zuhurtziaz jokatu behar dela azpimarratu beharrik ez dago. Noski! Baina arazoa hortxe egon daiteke: «poliki» joan behar horretan, amairik gabeko luzapenak ez ote diren moztortuko.

«Abiapuntua» deritzon pasartean eskaintzen da bibliografia (Nafarroatik at ez beti oso eskuragarria) hortxe dauka irakurleak orain, zehatz-mehatz. Informazio bila joan nahi izanez gero, nora jo badakigu orain-goan. Eta oraindik ere Baskongadetan entzuten diren kritika mikatzek dirautelarik, pozgarria da Nafarroatik lerro hauek jasotzea: alor honetan «erabakigarria izan dela euskara batua».

Nafarroako egoera soziolinguistikoa «latza» da oraindik, Elorzen us-tez; baina «oro har, eta salbuespenak salbuespen, azken urteotan joera irauli egon da... orain euskaldun izatea ongi onartua dago gizartean».

Nafarroan, beste alde batetik, eta Baskongadetan bezala, Estatuaren aparatua dago erdal elebakartasunean tinko, «atzerapen nabarme-

nean».

Lege-egoera zehazki azaltzen da txostenean (Legeak, Foru-Dekretuak, eta beste); eta orain badakikegu nafartarren hizkuntz eskubideak gaur zertan diren. Ez baita gutxi!

Txostenaren bukaeran eskaintzen den bilduma, azkenik («**Etorkizunerako aurrikuspenak**»), «lorpenak» eta «konpondu gabeko arazoak» sailkatu dituelarik, guztiz baliosoa eta erabilgarria da.

J.Amударain eta G.Egia Gipuzkoako Teknikariek ere, bide bertutik, euskal Administrazioaren barrutik begiratzen dute euskal normalkuntzaren prozesua; nahiz irizpidez lehenengo biak baino askoz kritikoago agertu.

Jaurlaritzak prestatutako lehenengo plan-urteak oraintsu bete direnez, halako balantze gisako lana aurkeztu dute, zorrotz eta ausart.

Bi Teknikarion ustez, instituzioek euskararen **gaitasuna** bilatu dute bereziki (funtzionarioak euskaraz mintzatzeko gai izatea, alegia); eta ez euskara «de facto» eta mintzabide gisa lanean edo harremanetan **erabilia** izatea. Bata bestearen aurretik dator, jakina; baina bigarren urratsaren zain gaude.

Madriren aldetik —dinoskute— halako giro-aldaketa edo nabaritzen da: orain dela bospasei urte, espainiar gobernuak tribunaletara jotzen baitzuen «sistematikoki» euskara geldotzeko; orain, aldiz, horrelakoak bakanka baizik ez dira gertatzen.

Halaz ere, eta lan-munduari dagokionez, oraingoz «langile-soilek hizkuntz eskakizunak bete eta euskaraz ikasteko jarrera aldekoagoa izan dute, sindikatu gehienek baino». Alor honetan, hitz batez, atzetik omen dator burokrazia: askotan «goi karguen interes eza eta utzikeria» antzematen baitira.

Eta honetan sortzen da Amundarain-Egiaren kezka deitoragarria: ez ote garen itxura hutsezko tramankulu bat eraikitzen ari, «euskaldunetz jositako administrazio erdalduna» alegia.

Harritu egiten dira bi txostengileok Osasun-zerbitzuek, adibidez, **lehenentasun** nabarmenagorik ez dutela erreparatzean. Eta oso urduri agertzen hizkuntzen bizi-baldintzei buruz (baldintza **sozio-ekonomikoez**, zehazki) arreta zorrotzagorik ez somatzean.

«Euskararen gotorlekuaz» ahulezia hazkorraz eskaintzen diguten bilduma argitsuak, beldurra ere itsasten du gugan. Baina egoki dator egia mingarriak ere begi aurrean gordinki kokatzea.

Desberdin xamarra izanik ere, multzo berean paratuko nuke nik **Lagabaster-Urrutiaren** txostena. Hizkeraren juridikotasunak zailduta, dudarik gabe, lan honek irakurketa lasaia merezi du. Legetasun hutsaren barruan, irakaskuntza ez-unibertsitaria zertan den zehazki agertzen du; baita oinarri dituen bi Hizkuntza Eskakizunak azaltzen.

Kataluniari buruzko bi izkribuek, berriz, beste azpi-multzo bat osatzen dute.

Joan Solé i Camardonsen bi lanak, Hizkuntza Normalizazioa ardatz (**Plan Orokorra**, batetik, eta **1995erako lan-ildoak**, bestetik), interes osoa dute guretzat; euskararentzako «Plangintza Orokorra» errepikan eskatzen dugunean, laguntza aparta baitzaigu herri kide baten esperimentziak eta lorpenak ahalik eta zehazkienik ezagutzea.

J.Solé lankidea, bestalde, ongi ezaguna zen gure artean; orain dela bi-zpahiru urte, euskaltzale batzuen laguntzaz baliaturik, «**Adorez eta Atseginez**»ek, **EKBk** eta **UEUk** itzuli, prestatu eta argitara baitzuen euskaraz beraren «Sociolingüística per a Joves» liburua (ale honetanxe Odriozolak aztertua).

J.M.Odriozola lankideak, arestian esaten genuenez, ohituta gauzka bere irakurketa sozio-linguistikoen berri orrialde hauetan ematen. Eta gaur ere gauza bera egin du. Soléren «**Soziolinguistika gazteentzat**» izeneko liburua aurkeztuz.

Autorearen «pedagogi sena» azpimarratu ondoren, Odriozolak puntuz puntu azaltzen dizkigu 15 kapituluen ideia nagusiak. Gure artean kostata ulertu eta hedatu diren funtsezko kontzeptuak berriro azalduz, hizkuntz gatazka, berez, «arriskua» edo «gauza txarra» ez dela gogorarazten digu. Bidea hortik doa, hain zuzen. Areago: «maila ideologikoan dagoen gatazka irabazten ez den heinean, pentsaezina da inolako hizkuntz normalkuntzarik».

Arau ortografikoak, beharrezkoak izanik ere, «nahikoa ez direla» azpimarratzen du Odriozolak. Eta «erabilgarritasuna» eta «erabili-beharrak» bi gauza desberdin direla oroitarazten.

Euskaldunen arteko egoera eta irizpide nagusi batzuk astintzen ditu

ausarki (zenbaiti atsegin izango ez bazaizkio ere), Mitxelena, M.K.Garmendia eta Oliveri berak izenez aipatuz.

Eta amorrua ia-ia gailentzen zaiolarik, eta osoki irizkid gaituelarik, Txepetx «kaiuen artera» joana senditzen du lerro etsi pare batez.

Amaitzeko, aipamen luze eta berezia merezi luke, noski, Jaurlearitzaren plangintzaz, EKBk prestatu duen txosten zehatza: *EAEko Administrazioa euskalduntzeko lehen plangintzaldiaren balantzea eta aurrera begirako proposamenak*.

Emaitzak «oso motzak» izan direla dio, eta hau ikusmolde ofizial baiko-rraren aurka dator osotara.

Kontraesanak daude zifretan; eta daturik kezagarrienak eta adierazgarrienak, hain zuzen, ezkutuan dautza. Nola ulertuko, adibidez, er-tzainik «gehienek» erdaldunak izanik, Euskalduntze Plangintzan **Er-tzantza** at uztea?

Beste galdera batzuen erantzuna, berriz, ziplo etorriko zaio irakurleari: administrazioko **langileria** hizkuntz eskakizunak betetzera behar-tzen da; artean **politikari profesionalak eta alderdi politikoetako hautetsiak** at geratzen dira. Zergatik ote?

Halaz ere, EKBk gordinki azpimarratzen duenez, «faktore baldintza-tzaille» nabarmena dira politikariak eta hautetsiak (erdararen eragile sendoak, garbikiago hitz egitekotan).

Txostenaren bilduma gisa, EKBk Jaurlearitzari egiten dizkion 11 pun-tuak daude hor, mamitsu eta egoki.

Berorien emaitzez, geroa mintza bekigu.